SANDAILIREN KONDAIRA

Jentilek babesleku eta Amalurraren tenplutzat zituzten Kobazuloak. Gero, kristautasuna zabaldu zenean, kobazuloak erlijio berrirako eraldatu zituzten, askotan elizak edo ermitak eraikiz. Sandailin horixe gertatu zen eta, gainera, duela gutxira arte izugarrizko joera egon da bertara jateko Oñatitik eta Arabatik.

Orain eskalatzaile asko ibiltzen dira Sandaili inguruko hormetan armiarmen pare, alde guztietatik etorritakoak. Zelan aldatzen diren gauzak, ezta? Pareta hauek mendeetan gorde dute ermita eta kobaren sekretua, eta **Sandailirekin lotutako pasadizo, kanta, ohitura eta sinesmen asko ere badira, batzuk orain gutxira arte iraun dute.**

Ohitura bitxiena, seguru asko, hauxe da: umerik gabeko senar-emazteak Sandailira joaten omen ziren laguntza eske eta, han, ermita-kobarako eskaileran dagoen harrizko aska batean, uretan sartzen omen zen andrea, hartara familia izatea lortuko zuelakoan. Eta badakizue Sandailin ez dagoela iturririk? Askari ura kobazuloaren gaineko hormatik jausten den txitxin edo itogin batetik datorkio!

NONDIK DATOR SANDAILI IZENA? ZER ISTORIO DAGO HORREN ATZEAN?

Herri kondairetan eta dokumentuetan Santa Ilia edo San Elias izenez agertzen da pertsonaia bat. Araotz-Arantzazun ez ezik, Arabako iparraldean ere ezaguna omen da. Narbaxakoa omen zen, eta handik harrika bidali zutenean Araotzeko haitz artean topatu omen zuen babeslekua.

Ikusi zer kontatu zion Ignazio Erostarbe Oñatiarrak Bitoriano Gandiagari:

"San Elias eta horreik hiru anae ziran. Bat San Adrianen dago, Adrian izango zan-da. Bestia San Elias, ta bestia San Julian. Da oso ei ziran gaiztuak eta amak esaten ostela elkar ikusiko eztauen lekura, hirurak hiru mendittara bidaliko zittuala. Bat San Adrianera, bestia be San Eliasen dago, eta San Julian, berriz, ham, beheko mendi puntan dago ha be, Urrusulatik haruntz. Eta San Elias harrika atara ei euen Narbaxatik gaiztua zalako, eta gero santu egin zan... Eta orain Narbaxakueri harrika atara euelako, eurixa baiño lehenago harrixa egiten doste"

XV. Mendeko euskarazko kanta batek beste istorio bat ere kontatzen du, agintariengandik ihesi zihoazen gaizkile batzuk Sandailiko kobazuloan lortu zutela euren buruak salbatzea.